


Plan bat proposatu nahi dizut

Laguna berandu datorrelako hasi ote zara hau irakurtzen tabernako barran? Postontzitik hartu ote nauzu egun luze baten ondoren etxera heldu zarenean? Badakit: norbaitek Facebooken jarri duelako –eman eskerrak gure partez– iritsi zara hona. Edonola, asko eskertuko dizut tarte txiki bat hartzea irakurtzeko.

| ARGIA |

KONTUA DA, ez dugula jakiten nola leitzen gaituzun. Eta zuk seguruenik ez dakizu nondik idazten dugun ARGIA. Etxe-orratzaren puntan dagoen erredakzioa etorri zaizu burura? Garaje bat? Salako sofán pijama jantzita lan egiten duen kazetari bat?

Harrigarria da: zenbat gauza esaten diogun elkarri eta ze gutxi dakigun batak besteari buruz. Eta, ez dakit zuk, baina guk batzuetan behar dugu bion artean dagoen kristala erretiratzea. Nor zaren jakin, zergatik zatozen astero aldizkari honetako orrietara edo edo-



Egutegia 2015

Jakintza eta irribarre puskak egunero

ASTEKO zazpi egunetarako, goizeroko (edo gaueroko) irakurketa dosi txikia prestatu dizuegu, urtero bezala. Astelehenetan historia zati bitxiak irakurtzeko parada izango duzue. Demokrito filosofoak atomoa zer izan zitekeen ogi egin berriari esker jakin zuela ikasiko dugu adibidez, eta nola X. mendean, tronua berreskuratzeko Antso I.ak kiloak galtzeko dieta egin behar izan zuen. Asteartetan, etxerako lagungarri izango zaizkigulakoan hainbat gomendio eskaini ditugu, hala nola, zorriak eta arropako orbanak nola kendu. Asteazkenetan, animaliei buruzko bitxikeriez gozatuko dugu eta ostegunetan berriz, *bitzokeiei* esker ea ezpainetan irribarre ateratzen zaigun. Ostiraletan, ARGIA aldizkarian argitaratutako bertsoen hautaketa egin dugu. Jakintsu eta artistek botatako esaldi laburrek zer pentsa emango digute larunbatetan. Voltairrek esandako hau aurkituko duzue adibidez: “Zoriontsua izatea erabaki dut, biziki ona baita osasunerako”. Igandeetan, irribarretxoa edo algara nagusi izan dadila, Kike Amonarrizen txistek eragina.

Jakintza puska horiez gain, noski, urtero bezala itsasoari, eguzkiari eta ilargiari begiratu diegu eta Seaskaren izendegia eskaini dugu.

zein unetan webgunean jarri duguna ikustera. Seguru ez garela oso diferenteak. Zuk ere lan egiten duzu, horretarako aukera duzunean, bizimodua aurrera ateratzeko. Dena errazagoa izango zela uste zenuen. Asko aldatu dira gauzak. Eskema zaharrak borratu behar izan dituzu azken urteotan, dena zerotik hasi behar dela dirudi. Aurrera zoaz hala ere. Barre egiten duzu, maite dituzunekin elkartzen zara, bizi zara ahal duzun hoberen, egun bakoitzak ematen dizkizu motiboak “merezi du” esateko.

ARGIA zuretzat arrazoi horietako bat izatea besterik ez dugu nahi.

Elkarrekin zerbait egiten hasi nahi dugu

Hotza egiten du erredakziotik kanpo. Zuretzako lerro hauek idaztera sartu naizen egunean etxe honetan lan egiten dugunok elkarrengandik gertuxeago sumatu ditut. Taldeko beroan neguak ez du hain gordina ematen. Prozesu baten erdian gaude, gure funtzionatzeko modua ahalik eta parte-hartzaileena izan dadin.

Eta etxe barrurako balio duenak kanporako ere funtziona dezakeela uste dugu. Elkarren arrimuan daukaguna baino hobea den zerbait lortuko dugula. Animatuko ote zina-

teke gurekin zerbait egitera? Elkartu besterik ez dugu egin behar.

Nola? Noiz? Aukerak ez dira faltako, baina momentuz, Durangoko Azoka datorkigu eta hortik has gaitezke. Zer iruditzen gure standetik pasatzea? Harpideduna bazara, opari bat daukagu zuretzat gordeta, Bixente Ameztok aldaketaz beteriko beste garai batean, Trantsizioan, aldizkari hau artean zerukoa zenean, guretzat egin zituen azalen bilduma.

Kaxa txiki batzuk ere aurkituko dituzu gurera bazatoz. ARGIAren harpidetza bana dago barruan eta hazi bat, buztinetan bildurik. Zu bezalako jendeak bere babes ekonomikoa ematen digunean, bizitza pixka bat ematen dio proiektu komunikatibo honi. Eta trukean zuri, edo gurekin gustura egongo dela uste duzun zure lagun horri, bizitza pixka bat ereiteko tresna eman nahi diogu.

Hazi bat oparitu eta negua pasatzean emango du landarea. Hazi asko oparitu eta komunikabide txiki hau baso bihurtuko da, haren gerizpean hitz egingo dugu aldatu denaz eta aldatu behar lukeenaz. Lagundu-

ko diguzu? Besterik ez nizun esan nahi. Orain zuk zer diozun entzun nahi dut. ■



Txiste liburua

Txorakikeriak saileko azkena... edo

1980AN hasi zen Kike Amonarriz umoreari tartea eskaintzen ARGIAko orrialdeetan, Titiriteroak sailean. Bi urte geroago –gaurdaino– astero-astero txisteak argitaratzeari ekin zion tolosarrak, eta harrezkerotik horien hainbat bilduma plaza-ratu ditugu; lehenbizikoa 1983an, *Arpa jotzen* izenburuarekin. Ordurako Euskal Herri osoan barrena zebilen Amonarriz, Joxe Ramon Galarragarekin batera, txiste afariak egiten.

1998an Txorakikeriak saileko estreinako alea eman zen argitara; 2014ko Durangoko Azokan salgai jarriko den Azken txorakikeriak, berriz, bosgarrena duzu. Liburua azken hamarkadan ARGIAN argitaratutako txisteen hautaketa da.

Izenburuak, nahita, atek zabalik utzi dizkio zalantzari: azkena behin betiko... edo momentuz baino ez? Ez jakin. Ezta egileak berak ere, aitortu duenez. Seguru da, ordea, denboraldi luze batean Kike Amonarrizen sinadura, 35 urtez ia ia aldizkariaren berariazko osagaia izan dena, ez dela agertuko ARGIAN, ez behintzat txiste bati atxikita. Milaka batzuk idatzi ostean, garaia iritsi da luma mahai gainean pausatzeko.

2015eko lehen ARGIArekin batera hasiko da etena. Denborak esango du atsedena betiko den, edo oraindik Amon... barka, Kikek asmatu edo jasotako pasadizo gehiago ikustekoak garen orrialde hauetan. Momentuz, balio beza hutsunea betetzeko Azken txorakikeriak bilduma honek.



Europako Nazioak eta Petersen proiektzioa

Errealitatea beste era batera islatzen duten mapak

Durangon bi mapa izango dira eskuragai ARGIAren gunean, biek errealitatea ezohiko modu batean islatzen dute: Batetik, Europako herrien mapa berria. Europako kultur aniztasuna islatzen da, egungo estatu-entuen egituratik harago. Eurominority elkarteak egin eta ARGIAk euskaratu du. Egun argia.eu/denda gune digitalean 15 euroan eros daiteke, bidalketa gastuak barne. Durangon 13,5 euroan eskura daiteke, garraiatzeko kartoizko hodi eta guzti.

Bestetik, Petersen Munduko Mapa ere eskuragai izango da euskaraz. Eurozentrismo menderatzailearen isla duen Mercatorren mapa munduan masiboki

zabalduta dago. Petersen proiektzioak Mercatorrenak dituen akatsak zuzentzen ditu. Alemaniako historialariak kartografia hartu

zuen oinarri munduko irudia egiteko, geografikoki eta politikoki herri bakoitzak behar zuen lekua izan zezan.



abenduak 3 euskararen eguna



euskara, zure frekuentzian

ARKIMEDESEN PRINTZIOA

Maskarada

PRINCIPAL ANTZOKIA, 20:30

SARRERA: 3 €

Salmenta

> **PRINCIPAL ANTZOKIKO LEIHATILAN**

Salgai, ohiko ordutegietan, 18:30-20:30, asteartetik larunbatera (jaiegunetan izan ezik)

> **TELEFONOZ: 945 16 10 45**

> **INTERNETEN BIDEZ**



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala